



**EUSKADI Literatura Sariak  
Premios de Literatura EUSKADI**

**2015**

**Euskarazko saiakera/ Ensayo en euskera**

**Euskarazko haur eta gazte literatura / Literatura infantil y juvenil en euskera**

**Gaztelaniazko literatura/ Literatura en castellano**

**Euskarazko literatura/ Literatura en euskera**

2015eko urriaren 8an / 8 de octubre de 2015



## EUSKADI LITERATURA SARIAK PREMIOS LITERARIOS EUSKADI 2015

### Euskarazko saiakera - Ensayo en euskera

Irabazlea - Ganador: **JOXE AZURMENDI**  
Izenburua / Título: ***Historia, arraza, nazioa***  
Argitaletxea / Editorial: **Elkar**

### Euskarazko haur eta gazte literatura – Literatura infantil y juvenil en euskera

Irabazlea - Ganadora: **YOLANDA ARRIETA**  
Izenburua - Título: ***Argiaren alaba***  
Argitaletxea - Editorial: **Obra autoeditada**

### Gaztelaniazko literatura – Literatura en castellano

Irabazlea - Ganador: **MARTÍN OLMOS**  
Izenburua - Título: ***Escrito en negro***  
Argitaletxea - Editorial: **Pepitas de Calabaza**

### Euskarazko literatura – Literatura en euskera

Irabazlea - Ganador: **MIKEL PERUARENA**  
Izenburua - Título: ***Su zelaiak***  
Argitaletxea - Editorial: **Susa**



## EUSKADI LITERATURA SARIA EUSKARAZKO SAIAKERA 2015

### Epaimahaia:

- Joseba Gabilondo, epaimahaiburua
- Juan Ramon Makuso, epaimahaikidea
- Ainhoa Larrañaga, epaimahaikidea
- Agurtzane Elorduy, epaimahaikidea
- Juan Garzia, epaimahaikidea

### Irabazlea eta sariaren nolakoa

Idazlea:	<b>Joxe Azurmendi</b>
Izenburua:	<b><i>Historia, arraza, nazioa</i></b>
Argitaletxea:	<b>Elkar</b>

18.000 euroko saria eta 4.000 euro lan saritua beste hizkuntza batean argitaratzen bada.

### Epaimahaiak ikusitako merituenak

Azurmendiren liburuak Europan egun doxa den nazionalismo zibikoaren ideia aztertzen eta kritikatzeko du, bere iturri nagusietako batera joaz: Renan-en lanera. Hala, beste Europa bat pentsatzeko atea zabaltzen digu.

Obraren dokumentazio lan sakonak biziki aberasten du nazionalismoaren inguruko egungo gogoeta hori, eta sarritan falta zaion berme akademikoa ekartzen dio.

### Joxe Azurmendi

Joxe Azurmendi Otaegi (Zegama, 1941) Filosofiako irakasle katedraduna da EHUUn, Jakin taldeko partaidea eta euskal saiogilerik zorrotz eta berritzaileena. Bere produkzio oparotik, aipa ditzagun azken aldiko liburuak: *Gizona abere hutsa da, Gizaberearen bakeak eta gerrak, Espainolak eta euskaldunak, Demokratik eta biolentoak, Oraingo gazte eroak, Teknikaren meditazioa, Euskal Herria krisian, Etienne Salaberry: bere pentsamenduz, Espainiaren arimaz, Volksgeist-Herri gogoa: Ilustraziotik Nazismora, Humboldt: hizkuntza eta pentsamendua, Bakea Gudan: Unamuno, historia eta karlismoa.*



## ***Historia, arraza, nazioa***

### ***Renan eta nazionalismoaren inguruko topiko batzuk***

Egia unibertsal eta eztabaidagabetzat hartzen direnetako asko gezur interesatuak edo gaizki-ulertu zabalduak izaten dira maiz (biak batera, gehienetan). Halako zerbait gertatzen da nazioaren kontzeptu aleman eta frantses direlakoekin: lehena erromantikoa eta bigarrena liberala (iritzi orokortu horren arabera); bata odolean, hizkuntzan, ohituretan oinarritua, eta bestea lurralde berean bizi diren gizon-emakumeen borondate komunean, omen.

Uste horren jatorri eta bilakaera aztertu du Joxe Azurmendik, bereziki Ernest Renan pentsalari bretoiaren idatziak arakatzuz, baita XIX mendeko intelektual frantses eta alemanen arteko polemika ugariak ere. Arraza, historia eta nazioaren arteko harreman konplexu eta askotarikoak xehekiro miatuaz, ideia horien garapen eta eragin zabala ikusiko dugu, baita Europaren bi mendeko historian utzi duten arrasto sakona ere: nazioanalismoak, gerrak, inperialismoa, arrazismoa...

### **Aurreko ekitaldietako irabazleak**

- (2010) Azurmendi Otaegi, Joxe. *Azken egunak Gandiagarekin*, Elkar.
- (2011) Sarrionaindia, Joseba. *Moroak gara behelaino artean?*, Pamiela.
- (2012) Mujika Iraola, Inazio. *Xabier Lete (Auto)biografia bat*, Alberdania.
- (2013) Sudupe Martija, Jon. *Oi Europa!*, UPV/EHU
- (2014) Gabilondo Alberdi, Joseba. *New York Martutene*. UPV/EHU



## PREMIOS DE LITERATURA EUSKADI ENSAYO EN EUSKERA 2015

### Jurado

- Joseba Gabilondo, presidente del jurado
- Juan Ramon Makuso, vocal
- Ainhoa Larrañaga, vocal
- Agurtzane Elorduy, vocal
- Juan Garzia, vocal

### Premio y premiado

Autor:	<b>Joxe Azurmendi</b>
Título:	<b><i>Historia, arraza, nazioa</i></b>
Editorial:	Elkar

Premio de 18.000 euros y 4.000 euros si la obra premiada se publica en otra lengua.

### Razonamiento del jurado

El libro de Azurmendi analiza y critica la idea del nacionalismo cívico, que actualmente es *doxa* en Europa, recurriendo para ello a una de sus fuentes principales: el trabajo de Renan. De este modo, nos abre la puerta a pensar otra Europa.

El intenso trabajo documental de la obra enriquece de manera importante la mencionada reflexión actual sobre el nacionalismo, a la que dota de una garantía académica de la que a menudo ha adolecido.

### Joxe Azurmendi

Joxe Azurmendi Otaegi (Zegama, 1941), profesor catedrático de Filosofía en la UPV, miembro del grupo Jakin, y uno de los más agudos e innovadores ensayistas vascos. Entre su abundante producción, podemos mencionar: *Gizona abere hutsa da* (*El hombre es una simple bestia*); *Gizaberearen bakeak eta gerrak* (*Las paces y guerras de la bestia humana*); *Espainolak eta euskaldunak* (*Espanoles y vascos*); *Demokratak eta biolentoak* (*Demócratas y violentos*); *Oraingo gazte eroak* (*Los jóvenes locos de hoy*); *Teknikaren meditazioa* (*Meditación de la técnica*); *Euskal Herria krisian* (*Euskal Herria en crisis*); *Etienne Salaberry: bere pentsamenduaz* (*Etienne Salaberry: de su pensamiento*); *Espainiaren arimaz* (*Del alma de España*); *Volksggeist-Herri gogoa: Ilustraziotik Nazismora* (*Volksggeist-Espíritu del pueblo: de la Ilustración al Nacismo*); *Humboldt: hizkuntza eta*



*pentsamendua (Humboldt: lengua y pensamiento), y Bakea Gudan: Unamuno, historia eta karlismoa (Paz en la Guerra: Unamuno, historia y carlismo).*

## **Historia, arraza, nazioa**

### **Renan eta nazionalismoaren inguruko topiko batzuk**

Muchas de las que se toman como verdades universales e indiscutibles son mentiras interesadas o malentendidos (las dos cosas a la vez, en la mayoría de los casos). Algo así sucede con los conceptos de nación alemán y francés: el primero romántico y el segundo liberal (según la opinión generalizada); uno basado en la sangre, la lengua, las costumbres, y el otro, según se dice, en la voluntad común de hombres y mujeres.


Joxe Azurmendi analiza el origen y la evolución de la mencionada creencia, indagando especialmente en los escritos del pensador bretón Ernest Renan, así como en las muchas polémicas habidas en el siglo XIX entre intelectuales franceses y alemanes. Analizando minuciosamente las múltiples y complejas relaciones entre raza, historia y nación, nos muestra el amplio desarrollo e influencia de esas ideas y la profunda marca que han dejado en la historia europea durante dos siglos: nacionalismos, guerras, imperialismos, racismo...

## **Ganadores en las anteriores ediciones del premio**

- (2010) Azurmendi Otaegi, Joxe. *Azken egunak Gandiagarekin*, Elkar.
- (2011) Sarrionaindia, Joseba. *Moroak gara behelaino artean?*, Pamiela.
- (2012) Mujika Iraola, Inazio. *Xabier Lete (Auto)biografia bat*, Alberdania.
- (2013) Sudupe Martija, Jon. *Oi Europa!*, UPV/EHU
- (2014) Gabilondo Alberdi, Joseba. *New York Martutene*. UPV/EHU

Irabazlea - Ganador:  
Izenburua - Título:  
Argitaletxea - Editorial:

**Joxe Azurmendi**  
***Historia, arraza, nazioa***  
**Elkar**





## EUSKADI LITERATURA SARIA

# EUSKARAZKO HAUR ETA GAZTE LITERATURA

## 2015

### Epaimahaia

- Itziar Zubizarreta, epaimahaiburua
- Imanol Mercero, epaimahaikidea
- Elisabet Mas, epaimahaikidea
- Naroa Zubillaga, epaimahaikidea
- Xabier Olaso, epaimahaikidea

### Irabazlea eta sariaren nolakoa

<b>Irabazlea:</b>	<b>Yolanda Arrieta Malaxetxebarria</b>
<b>Izenburua:</b>	<b><i>Argiaren alaba</i></b>
<b>Argitaletxea:</b>	<b>autoedizioa</b>

18.000 euroko saria eta 4.000 euro, lan saritua beste hizkuntza batean argitaratzen bada.

### Epaimahaiak ikusitako merituak

"Argiaren alaba", Yolanda Arrietaren lana saritzeko irizpide desberdinak hartu ditugu kontuan. Lan aparta iruditu zaigu "Argiaren alaba". Aparta, hain zuzen, ezohikoa delako, aparteko muina duena: ez da historia liburu bat, baina historia du; ez da fikzio liburu bat, baina fikzioa ere badu, ez da biografia bat, baina biografiatik asko du. Saiakera honek Bizenta Mogelen bizitza ezagutarazten digu, eta bikain transmititzen euskal literaturan lehen idazle emakume ezagunak bizi izan zuen garaia eta giroa. Obra ahots anitza da, eta idazkera ere egokituta dago orduko garai eta giroetara: Hainbat hizkuntz erregistro erabiltzen dira, eta testu tipologia desberdinak maila gorenean eskaintzen zaizkigu; euskalkiak ere behar narratiboen eta erabilpenaren naturaltasunean dabilta, kontakizunari edertasuna eta zehaztapena eranstean. Dokumentazio lan eskerga du atzetik "Argiaren Alabak", eta, hariz hari, sormenari eta fikzioari tokia eginez, emaitza bikaina eskaintzen die autoreak Euskal Herriko gazteei. Autoedizioan argitaratutakoa da Yolanda Arrietak duintasun osoz burutu duen lan hau, eta hari esker Bizenta Mogelek bizitako garai trumultsuak eta hartu zituen hautuak eta erabakiak geure egiten ditugu.



## Yolanda Arrieta Malaxetxebarria

Yolanda Arrieta Malaxetxebarria Lea Artibaiko Etxebarrin jaio zen 1963an eta Usurbilen bizi da orain. Irakasletza, Antzerkia eta Kultura eta Gizarte Antropologia ikasi ditu. *Argiaren alaba* (2014) eta *Maddalen usaina* (2014) dira argitaratu dituen azken lanak, baina *Begigorritarren erlojua* (1992) ipuinarekin hasi zen haurrentzat idazten. Jarraian etorri ziren *Hegaldiak* (1994), *Nola bizi zazpi bizi* (1996), *Izar bat erori da zerutik lurrera* (2000), *Astebeteko kontuak* (2005), *Zazpi pertsonaia istorio bila* (2008) edo *Nitaz ahaztu dira* (2010). Ez du antzerkia inoiz ahaztu: *Badago ala ez dago?* (1998) edo *Groau!* (2004). Ez du albora utzi poesia: *Denboraren kanta-kontuak* (1995) edo *Ai, ai, ai!* (2012). Genero guztiak konbinatu ditu irudigileekin album ilustratuak sortzerakoan: *Oinutsik jauregian* (2007), *Amarunen alamandrea* (2009), *Agur, ama!* (2009), *Itzalpetik* (2010), *Amaren urteak* (2011) edota *ABCD berri bat* (2011). Iragana gaurkotuz geroa eraikitzea atsegin du: *Jostorratza eta haria* (2001), *Emakumeen irudia euskal ipuin herrikoietan: Mari-xor* (2005), *Iturretako ermita* (2011), *Basajaun eta Martin* (2012) edota *Argiaren alaba* (2014). Saio bereziak egiten ditu gazteei literatura gerturatzeko, *Bizenta Mogel Elgezabal: andre argi baten ikurrak* hitzaldi-tailerria kasu, *Argiaren alaba* liburuaren erakusgarri. Bakarkako lana sormen tailerrekin uztartzen du, ahoz nahiz idatziz, nitik gura. Literaturaz blaituriko produktuak ere sortzen ditu: egutegi literarioak, postalak edota eskola agendak. Ipuinetik bizi da, aspaldiko lemari fidel: jana gorputzerako, lagunak bihotzerako eta kontuak arimarako.

## Argiaren alaba

Mirarik hamazazpi urte ditu, aita amerikarra eta ama euskalduna. Estatu Batuetan bizi arren, ama eta izeko Amaia jatorri euskalduna mantentzen saiatu dira, betidanik, eta horregatik moldatzen da primeran euskaraz. Gaitasun handiko nerabea izanik, ez du inoiz arazorik izan letrekin eta zenbakiekin, baina berak dioen bezala, “adimena estatistiken gaintetik doanean, emozioak auskalo, eta bizipenak, estatistikoki altutzat hartzen den adimena baino koska bi beherago, hegaldatzeak eskatzen duen abiada hartzeko lurrik gabe sentitzen da bat”. Horregatik, etxean beretzako antolaturik zeuden planei aurea hartuz, izeko Amaiarekin igaroko du 2013ko uda aitita-amamen lurraldean. Era bitxi batean, ordea: denboran salto eginez, bi mende eta laurden aurretik, bertan hazitako neska idazle baten bizimoduan murgildu ahala, datuak fikzio bihurtzen.

## Aurreko ekitaldietako irabazleak

- (1997) Atxaga, Bernardo. Xola eta basurdeak, Erein.
- (1998) Zubizarreta Dorronsoro, Patxi. Gizon izandako mutila, Pamiela.
- (1999) Igerabide, Juan Kruz. Jonas eta hozkailu beldurtia, Aizkorri.
- (2000) Juaristi, Felipe. Animalien inauteria, Erein.
- (2001) Karlos Linazasoro. Bota gorriak, Anaia-Haritza.
- (2002) Meabe, Miren Agur. Itsaslabarreko etxea, Aizkorri.
- (2003) Morillo, Fernando. Izar-malkoak, Aizkorri.
- (2004) J. M Olaizola “Txiliku”. Osaba Bin Floren, Elkar.
- (2005) Olaso, Xabier. Pupunan Trapua, Pamiela.
- (2006) Zubizarreta, Patxi. Pantaleon badoa, Pamiela.



- (2007) Meabe, Miren Agur. Urtebete itsasargian, Elkar.
- (2008) Añorga, Pello. Jenio gaiztoa, Aizkorri.
- (2009) Ruiz, Ruben. Anekdotak, Pamiela.
- (2010) Zubizarrea Dorronsoro, Patxi. Xia Tenzinen bidaia miressgharria, Ibaizabal.
- (2011) Meabe Plaza, Miren Agur. Errepidea, Erein
- (2012) Zaldua Gonzalez, Iban. Azken garaipena, Euskal Herriko Ikastolak
- (2013) Olaso Bengoa, Xabier. Tximeletrak, Pamiela
- (2014) Cano, Harkaitz. *Orkestra lurtarra*. Elkar



## PREMIOS DE LITERATURA EUSKADI LITERATURA INFANTIL Y JUVENIL EN EUSKERA 2015

### Jurado

- Itziar Zubizarreta, presidenta del jurado
- Imanol Mercero, vocal
- Elisabet Mas, vocal
- Naroa Zubillaga, vocal
- Xabier Olaso, vocal

### Premio y premiada

<b>Autora:</b>	<b>Yolanda Arrieta Malaxetxebarria</b>
<b>Título:</b>	<b><i>Argiaren alaba</i></b>
<b>Editorial:</b>	<b>obra autoeditada</b>

Premio de 18.000 euros y 4.000 euros si la obra premiada se publica en otra lengua.

### Razonamiento del jurado

El jurado ha tomado en consideración varios criterios para premiar el título *Argiaren alaba* de Yolanda Arrieta. *Argiaren alaba* es una obra excepcional, con un núcleo inusual: no es un libro de historia, pero tiene una historia; no es un libro de ficción, pero también tiene ficción; no es una biografía, pero tiene mucho de biográfico. Este ensayo nos desvela la vida de Bizenta Mogel, y nos trasmite con brillantez la época y el entorno en los que vivió la primera escritora conocida en la literatura vasca. Es una obra de múltiples voces, donde la escritura se adapta a la época y a sus ambientes: emplea diversos registros de la lengua, y ofrece distintas tipologías de texto al más elevado nivel; los dialectos del euskera fluyen con naturalidad en función de las necesidades narrativas, aportando belleza y concreción al relato. *Argiaren alaba* es muestra de un ingente trabajo previo de documentación, en el que episodio tras episodio, y abriendo espacios a la creatividad y a la ficción, la autora ofrece una magnífica obra a la juventud vasca. El trabajo dignamente desarrollado por Yolanda Arrieta se ha publicado como autoedición de la propia autora, y gracias a él, vivimos como nuestras las convulsas épocas que conoció Bizenta Mogel así como las decisiones que adoptó.



## Yolanda Arrieta Malaxetxebarria

Yolanda Arrieta Malaxetxebarria nació en Etxebarri (Lea Artibai) en 1963, pero actualmente reside en Usurbil. Ha estudiado Magisterio, Teatro y Antropología cultural y social. *Argiaren alaba* (2014) y *Maddalen usaina* (2014) son sus obras más recientes, pero comenzó a escribir para el público infantil con el cuento *Begigorritarren erlojua* (1992). A éste le sucedieron *Hegaldiak* (1994), *Nola bizi zazpi bizi* (1996), *Izar bat erori da zerutik lurrera* (2000), *Astebeteko kontuak* (2005), *Zazpi pertsonaia istorio bila* (2008) o *Nitaz ahaztu dira* (2010). Nunca se ha olvidado del teatro: *Badago ala ez dago?* (1998) edo *Groau!* (2004). Tampoco ha dejado de lado la poesía: *Denboraren kanta-kontuak* (1995) o *Ai, ai, ai!* (2012). Ha combinado todos los géneros, cuando, de la mano de ilustradores, ha creado álbumes ilustrados: *Oinutsik jauregian* (2007), *Amarunen alamandrea* (2009), *Agur, ama!* (2009), *Itzalpetik* (2010), *Amaren urteak* (2011) o *ABCD berri bat* (2011). Le gusta construir el futuro actualizando el pasado: *Jostorratza eta haria* (2001), *Emakumeen irudia euskal ipuin herrikoietan: Mari-xor* (2005), *Iturretako ermita* (2011), *Basajaun eta Martin* (2012) o este mismo *Argiaren alaba* (2014). Organiza sesiones especiales para acercar la literatura a la juventud, como por ejemplo, la conferencia-taller *Bizenta Mogel Elgezabal: andre argi baten ikurrak*. Combina su trabajo en solitario con talleres de creatividad, orales o escritos, del yo al nosotros. También crea productos empapados de literatura: calendarios literarios, postales o agendas escolares. Vive “del cuento”, fiel al antiguo lema: la comida para el cuerpo, los amigos para el corazón y los cuentos para el alma.

### Argiaren alaba

Mirari tiene diecisiete años, padre americano y madre vasca. Aunque viva en los Estados Unidos, la *ama* y la *izeko* Amaia se han esforzado en mantener su origen vasco, desde siempre, y por eso Mirari se desenvuelve perfectamente en euskera. Adolescente de altas capacidades, nunca ha tenido problemas ni con letras ni con números, pero como ella misma dice, “cuando la inteligencia va por encima de las estadísticas, (...) una se siente sin el suelo necesario para tomar la velocidad que requiere el despegue”. Por ello, anticipándose a los planes que en casa habían preparado para ella, pasará el verano de 2013 en la tierra de *aitite* y *amama*, con *izeko* Amaia. Pero lo hará de una manera muy peculiar: dando un salto en el tiempo, dos siglos y cuarto atrás, y convirtiendo los datos en ficción a medida que va sumergiéndose en la vida de una joven escritora que vivió aquella época.


### Ganadores en las anteriores ediciones del premio

- (1997) Atxaga, Bernardo. *Xola eta basurdeak*, Erein.
- (1998) Zubizarreta Dorronsoro, Patxi. *Gizon izandako mutila*, Pamiela.
- (1999) Igerabide, Juan Kruz. *Jonas eta hozkailu beldurtia*, Aizkorri.
- (2000) Juaristi, Felipe. *Animalien inauteria*, Erein.
- (2001) Karlos Linazasoro. *Bota gorriak*, Anaia-Haritz.
- (2002) Meabe, Miren Agur. *Itsaslabarreko etxea*, Aizkorri.
- (2003) Morillo, Fernando. *Izar-malkoak*, Aizkorri.
- (2004) J. M Olaizola “Txiliku”. *Osaba Bin Floren*, Elkar.



- (2005) Olaso, Xabier. *Pupuan Trapua*, Pamiela.
- (2006) Zubizarreta, Patxi. *Pantaleon badoa*, Pamiela.
- (2007) Meabe, Miren Agur. *Urtebete itsasargian*, Elkar.
- (2008) Añorga, Pello. *Jenio gaiztoa*, Aizkorri.
- (2009) Ruiz, Ruben. *Anekdotak*, Pamiela.
- (2010) Zubizarreta Dorronsoro, Patxi. *Xia Tenzinen bidaia miresgharria*, Ibaizabal.
- (2011) Meabe Plaza, Miren Agur. *Errepidea*, Erein
- (2012) Zaldúa González, Iban. *Azken garaipena*, Euskal Herriko Ikastolak
- (2013) Olaso Bengoa, Xabier. *Tximeletrak*, Pamiela
- (2014) Cano, Harkaitz. *Orkestra lurtarra*. Elkar

Irabazlea - Ganadora: **Yolanda Arrieta Malaxetxebarria**  
Izenburua - Título: ***Argiaren alaba***  
Argitaletxea - Editorial: **autoedizioa – obra autoeditada**





## EUSKADI LITERATURA SARIA GAZTELANIAZKO LITERATURA 2015

### Epaimahaia

- Idoia Estornes, epaimahaiburua
- Maria Eugenia Salaverri, epaimahaikidea
- Isabel Muguruza, epaimahaikidea
- Iñaki Esteban, epaimahaikidea
- Juan Bas, epaimahaikidea

### Irabazlea eta sariaren nolakoa

Irabazlea:	<b>Martín Olmos Medina</b>
Izenburua:	<b><i>Escrito en negro</i></b>
Argitaletxea:	<b>Pepitas de Calabaza</b>

18.000 euroko saria eta 4.000 euro, lan saritua beste hizkuntza batean argitaratzen bada.

### Epaimahaiak ikusitako merituenak

Martin Olmosen *Escrito en negro* lanak Euskadi Literatura saria merezi duela deritzo epaimahaiak, bai bere edukiaren originaltasunagatik –kronika beltzetik harago baitoa, gizakiaren alderik ilunenetan murgildu eta marjinazioaren erretratua eginez-, bai bere idazkera bikainagatik: erraz asko ezagutzen den estilo propioa, kultutik bezain hurbil lumpenetik dagoen barrokismo pertsonala, gatz era piperduna, soltea, gure ingururik hurbilenean ohikoa ez den lexiko-aberastasuna erakusten duena. Ondo zaindutako sintaxia darabil Olmosek, orekatua, plazerez irakurtzekoa; azken finean, hizkera literario aberatsa sortu du, pertsonaia zarpailen, hondamenera baztertutako gizakien edo enpatiarik gabeko psikopaten istorio lazgarriak kontatzeko. Distantzia ironiko bat tartean utzita, irakurlea harrapatu eta nahasmendura darama. Goizean nagiak ateratzen ari bailitzan idazten ditu, istorio izugarriak, barrez eta haragiz borobilduak, guztia ere umorez ondo bustita.

### Martin Olmos Medina

Martin Olmos Bilbon jaio zen 1966an, eta gertakariak idazten ditu egunkarietan. Lehen liburua duen *Escrito en negro* honekin Café Bretón-Bodegas Olarra saria jaso zuen, bai eta Rodolfo Walsh saria ere Gijongo *Semana Negra* astean.



## ***Escrito en negro (Una tarde con la canalla)***

Herri eta hirietako plazetan krimen-kontalari aritzen ziren itsu haiek egiten zuten eran –baina haien aldean begiak ondo irekita eta dokumentazio handiagoarekin-, Martin Olmosek krimenak eta kriminalak azaltzen ditu zehaztasun handiz. Bere lehen liburua duen galeria honetan, gaitzaren bete-beteko bilduma osatzen du.

### **Aurreko edizioetako irabazleak**

- (1997) Ugarte, Pedro. *Los cuerpos de las nadadoras*, Ed. Anagrama.
- (1998) Fernández de la Sota, José. *Todos los santos*, Ed. Hiperión.
- (1999) Atxaga, Bernardo. *Lista de locos y otros alfabetos*, Siruela.
- (2000) Díaz-Mas, Paloma. *La tierra fértil*, Ed. Anagrama.
- (2001) Aramburu, Fernando. *Los ojos vacíos*, Tusquets editores.
- (2002) González San Martín. Miguel, *Pobeñeses*, Bassarai.
- (2003) Altarriba, Antonio. *La memoria de la nieve*, Espasa narrativa.
- (2004) Gil Bera, Eduardo. *Historia de las malas ideas*, Destino.
- (2005) Pinilla, Ramiro. *Verdes Valles, Colinas Rojas. 1. La tierra convulsa*, Tusquets.
- (2006) De Dios, Javier. *Comida para peces*, Hiru.
- (2007) Bas, Juan. *Voracidad*, Ediciones B.
- (2008) Leguineche, Manu. *El club de los faltos de cariño*, Seix Barral.
- (2009) Etxenike, Luisa. *El ángulo ciego*, Bruguera.
- (2010) Fernández De la Sota, José. *Vacilación*, Bassarai.
- (2011) Bilbao, Jon. *Bajo el influjo del cometa*, Salto de página.
- (2012) Márquez, Juan Carlos. *Tangram*, Salto de página.
- (2013) Pinilla, Ramiro. *Aquella edad inolvidable*. Tusquets Editores.
- (2014) Estornés, Idoia. *Cómo pudo pasarno esto*. Erein





## PREMIOS DE LITERATURA EUSKADI LITERATURA EN CASTELLANO 2015

### Jurado

- Idoia Estornés, presidenta del jurado
- Maria Eugenia Salaverri, vocal
- Isabel Muguruza, vocal
- Iñaki Esteban, vocal
- Juan Bas, vocal

### Premio y premiado

Autor:	<b>Martín Olmos Medina</b>
Título:	<b><i>Escrito en negro</i></b>
Editorial:	<b>Pepitas de Calabaza</b>

Premio de 18.000 euros y 4.000 euros si la obra premiada se publica en otra lengua.

### Razonamiento del jurado

Considera el tribunal que la obra *Escrito en negro* de Martín Olmos merece el premio Euskadi de Literatura tanto por la originalidad de su contenido, que trasciende la crónica negra para retratar la marginación ahondando en las oscuridades del ser humano, como por la brillantez de su escritura: un personal estilo de barroquismo entre lo culto y lo lumpen, un estilo propio que se identifica sin dificultad, lleno de sal y de gracia, desenvuelto, con una riqueza léxica desacostumbrada en nuestro panorama más cercano. Maneja Olmos una sintaxis bien cuidada, equilibrada, un placer; crea, en definitiva, una rica lengua literaria para contarnos historias al límite de piltrafas del arroyo, juguetes rotos o psicópatas sin aparente empatía, desde una distancia irónica que atrapa y desconcierta. Las escribe como desperezándose al sol, historietas terribles, redondas de risa y carne, todo ello con un evidente sentido del humor.

### Martín Olmos Medina

Martín Olmos nació en Bilbao en 1966 y escribe sucesos en los periódicos. “Escrito en negro” es su primer libro, por el que recibió el premio Café Bretón-Bodegas Olarra y el Rodolfo Walsh de la Semana Negra de Gijón.



## ***Escrito en negro (Una tarde con la canalla)***



Siguiendo los pasos de aquellos ciegos que contaban crímenes en las plazas de pueblos y ciudades, pero con los ojos más abiertos y con mucha más documentación, Martín Olmos nos narra con detalle crímenes y criminales, conformando con esta galería –que es su primer libro- todo un compendio del mal en estado puro.

## **Ganadores en las anteriores ediciones del premio**

- (1997) Ugarte, Pedro. *Los cuerpos de las nadadoras*, Ed. Anagrama.
- (1998) Fernández de la Sota, José. *Todos los santos*, Ed. Hiperión.
- (1999) Atxaga, Bernardo. *Lista de locos y otros alfabetos*, Siruela.
- (2000) Díaz-Mas, Paloma. *La tierra fértil*, Ed. Anagrama.
- (2001) Aramburu, Fernando. *Los ojos vacíos*, Tusquets editores.
- (2002) González San Martín. Miguel, *Pobeñeses*, Bassarai.
- (2003) Altarriba, Antonio. *La memoria de la nieve*, Espasa narrativa.
- (2004) Gil Bera, Eduardo. *Historia de las malas ideas*, Destino.
- (2005) Pinilla, Ramiro. *Verdes Valles, Colinas Rojas. 1. La tierra convulsa*, Tusquets.
- (2006) De Dios, Javier. *Comida para peces*, Hiru.
- (2007) Bas, Juan. *Voracidad*, Ediciones B.
- (2008) Leguineche, Manu. *El club de los faltos de cariño*, Seix Barral.
- (2009) Etxenike, Luisa. *El ángulo ciego*, Bruguera.
- (2010) Fernández De la Sota, José. *Vacilación*, Bassarai.
- (2011) Bilbao, Jon. *Bajo el influjo del cometa*, Salto de página.
- (2012) Márquez, Juan Carlos. *Tangram*, Salto de página.
- (2013) Pinilla, Ramiro. *Aquella edad inolvidable*. Tusquets Editores.
- (2014) Estornés, Idoia. *Cómo pudo pasarno esto*. Erein



Irabazlea - Ganador: **Martín Olmos Medina**  
Izenburua - Título: ***Escrito en negro***  
Argitaletxea - Editorial: **Pepitas de Calabaza**





# EUSKADI LITERATURA SARIA EUSKARAZKO LITERATURA 2015

## Epaimahaia

- Ur Apalategi, epaimahaiburua
- Yurre Ugarte, epaimahaikidea
- Jon Kortazar, epaimahaikidea
- Lourdes Otaegi, epaimahaikidea
- Pello Otxoteko, epaimahaikidea

## Irabazlea

Irabazlea:	<b>Mikel Peruarena Ansa</b>
Izenburua:	<b><i>Su zelaiak</i></b>
Argitaletxea:	<b>Susa</b>

Mikel Peruarenak ez du saria onartu.

## Epaimahaiak ikusitako merituak

*Su zelaiak* eleberria bete-beteko literatura da, epaimahaiaren iritziz, autoreak bere testua osatzeko *Gerla Handiko* garaian idatzitako lekukotasun eta gutunak baliatu dituelako *collage* bat burutu duela dioten arren. Eta egia da, esaterako, autoreak darabilen euskara itxuraz ez dela bere asmakuntza, baizik eta soldaduen eta garaiko kronikarien artikuluetatik hartutako adabakiez osaturiko prosa. Gertakari gehienak ere, egiazkoak direla antzeman daiteke, nahiz eta behar bada autoreak zerbait berea tartekatu duen noizean behin.

Haatik, aski ote da iturri hauek esku artean edukitzea horren liburu lortu, espresibo eta atsegina osatzeko? Epaimahaiaren iritziz, lekukotza horietatik askoz harantzago doa eleberri historiko hau. *Su zelaiak* maila literario jaso iritsi du, trebezia handia behar baita gerlaren kronologia hain modu naturalean sentiarazteko, adabakiz osturiko euskara hori benetako hizkera literario bihurtzeko, gertaera kolektiboaren sentsazioa sortzeko, tragedia handi horren kontakizuna pathos gabe egiteko, eta bereziki, hizkera eta gertakari zaharrei halako gaurkotasuna emateko.

## Mikel Peruarena Ansa

1978, Ereñotzu, Hernani



## Su zelaiak

Frantziako Armadak 1914ko udan gerrara deitu zituen euskal gazteak ere. Hilabete gutxi batzuetako kontua izango zela uste zutenak tronpatuta zeuden, ordura arteko gerra odoltsuena bilakatuko baitzen, 60 milioi pertsonaren mobilizazioarekin eta teknologia militar berrienarekin.

Baionako Infanteriako 49. Erreximenduaren ibilerak aletuz, krudelkeria neurrik gabeko haren kontakizun gordina dakar Mikel Peruarena Ansaren bigarren nobelak. Soldadu saldoa duzu protagonista, infernuko zelaietan sarraski kolektibo batean kiskalia. Eta soldadu haien guztien artean da Filipe Luro ikazkina ere, Arnegiko basoetan txondorren aldamenen tabakoa landatzen zuen huraxe bera, orain lubaki lokaztuetan Maitenaren gutunen esperoan dagoena.

Lehen Mundu Gerrako bataila eta triskantzeta Euskal Herriko 6.000 lagun hil ziren, eta beste milaka batzuk era lazgarrian hondatu: itsu, maingu, herren, zoro. Belaunaldi oso bat sakrifikatu zen.

## Aurreko edizioetako irabazleak

- (1997) Epaltza, Aingeru. *Tigre ebizan*, Elkarlanean.
- (1998) Juaristi, Felipe. *Galderen geografia*, Alberdania.
- (1999) Lertxundi, Anjel. *Argizariaren egunak*, Alberdania.
- (2000) Oñederra, Lourdes. *Eta emakumeari sugeak esan zion*, Erein.
- (2001) Saizarbitoria, Ramon. *Gorde nazazu lurpean*, Erein.
- (2002) Borda, Itxaro. *%100 Basque*, Susa.
- (2003) Lizarralde, Pello. *Larrepetit*, Erein.
- (2004) Muñoz, Jokin. *Bizia lo*, Alberdania.
- (2005) Cano, Harkaitz. *Belarraren aboa*, Alberdania.
- (2006) Zaldua, Iban. *Etorkezuna*, Alberdania.
- (2007) Montoia, Xabier. *Euskal Hiria sutan*, Elkar.
- (2008) Muñoz, Jokin. *Antzararen bidea*, Alberdania.
- (2009) Lete, Xabier. *Egunsentiaren esku izoztuak*, Pamiela.
- (2010) Etxegoien, Fermin. *Autokarabana*, Pamiela.
- (2011) Apalategi, Ur. *Fikzioaren Izterrak*, Susa.
- (2012) Cano, Harkaitz. *Twist*, Susa.
- (2013) Saizarbitoria, Ramon. *Martutene*. Erein
- (2014) Atxaga, Bernardo. *Nevadako egunak*. Pamiela



## PREMIOS DE LITERATURA EUSKADI LITERATURA EN EUSKERA 2015

### Jurado

- Ur Apalategi, presidente del jurado
- Yurre Ugarte, vocal
- Jon Kortazar, vocal
- Lourdes Otaegi, vocal
- Pello Otxoteko, vocal

### Premiado

Autor:	<b>Mikel Peruarena Ansa</b>
Título:	<b><i>Su zelaiak</i></b>
Editorial:	<b>Susa</b>

Mikel Peruarena no ha aceptado el premio.

### Razonamiento del jurado

El jurado considera que *Su zelaiak* constituye un ejemplo de literatura en estado puro, una novela en la que su autor se sirve de una serie de testimonios y correspondencia de la época de La Gran Guerra para –según sus propias palabras– ensamblar una especie de *collage* con el relato de hechos reales en la mayoría de los casos, aunque intercalado de pasajes de cosecha propia, en el que rescata el euskera empleado en las crónicas de esa etapa histórica.

En opinión del jurado, el elevado nivel literario de una novela histórica tan conseguida, expresiva y atractiva, va mucho más allá de la mera recopilación de testimonios. Peruarena consigue hacernos llegar, con gran habilidad y naturalidad, la cronología de la guerra, así como elevar a la categoría de literario un euskara hecho de retales, relatándonos el acontecimiento coral de la gran tragedia acontecida sin caer en la retórica, y, en especial, dotando de gran actualidad a aquellos viejos sucesos y usos del idioma.

### Mikel Peruarena Ansa

1978, Ereñotzu, Hernani

## Su zelaiak

Durante la contienda de 1914, también los jóvenes vascos fueron llamados a filas por el Ejército francés. Se equivocarían quienes pensaron que todo se solventaría en unos pocos meses, ya que iba a desencadenarse la guerra más sangrienta de las habidas hasta entonces, con 60 millones de personas movilizadas y uso de tecnología militar muy avanzada.

Esta segunda novela de Mikel Perurena Ansa narra las crueldades y atrocidades de la guerra, desgranando las andanzas del 49º Regimiento de Infantería de Baiona. Nos ofrece, así, una obra coral protagonizada por la tropa de soldados, abrasada en la masacre colectiva de los campos del infierno, entre los que destaca Filipe Luro el carbonero, el mismo que en otros tiempos cultivaba tabaco junto a las carboneras de los bosques de Arnegi, ahora agazapado en las embarradas barricadas, ávido de noticias de Maitena.

La Primera Guerra Mundial causó verdaderos estragos y supuso el sacrificio de toda una generación: 6.000 vascos murieron y otros miles resultaron atrozmente lisiados (invidentes, tullidos, inválidos, perturbados...).

## Ganadores en las anteriores ediciones del premio

- (1997) Epaltza, Aingeru. *Tigre ebiztan*, Elkarlanean.
- (1998) Juaristi, Felipe. *Galderen geografía*, Alberdania.
- (1999) Lertxundi, Anjel. *Argizariaren egunak*, Alberdania.
- (2000) Oñederra, Lourdes. *Eta emakumeari sugeak esan zion*, Erein.
- (2001) Saizarbitoria, Ramon. *Gorde nazazu lurpean*, Erein.
- (2002) Borda, Itxaro. *%100 Basque*, Susa.
- (2003) Lizarralde, Pello. *Larrepetit*, Erein.
- (2004) Muñoz, Jokin. *Bizia lo*, Alberdania.
- (2005) Cano, Harkaitz. *Belarraren aboa*, Alberdania.
- (2006) Zaldua, Iban. *Etorkezuna*, Alberdania.
- (2007) Montoia, Xabier. *Euskal Hiria sutan*, Elkar.
- (2008) Muñoz, Jokin. *Antzararen bidea*, Alberdania.
- (2009) Lete, Xabier. *Egunsentiaren esku izoztuak*, Pamiela.
- (2010) Etxegoien, Fermin. *Autokarabana*, Pamiela.
- (2011) Apalategi, Ur. *Fikzioaren Iztarrak*, Susa.
- (2012) Cano, Harkaitz. *Twist*, Susa.
- (2013) Saizarbitoria, Ramon. *Martutene*. Erein
- (2014) Atxaga, Bernardo. *Nevadako egunak*. Pamiela



Irabazlea - Ganador: **Mikel Peruarena Ansa**  
Izenburua - Título: ***Su zelaiak***  
Argitaletxea - Editorial: **Susa**

MIKEL PERUARENA ANSA

# SU ZELAIAK

